



SAIKU DETEKTIBEA GOZOKI-LAPURREN BILA

Arantza Ibarra Basañez

Egilearen marrazkiak

Desclée De Brouwer




Gure Itsaso
handiaren toki
txiki eta ezkutu
batean, Mialo
izeneko irla
zoragarri bat
agertzen zaigu.



Oraindik gizakiak
ez du aurkitu.

Mialon,
mota guztietako
animali, landare
eta izaki
magikoak
bizi dira.





Denak lan,
jolastu, eta
elkarri laguntzen
diote.

Baina norbaitek
gaiztokeriren bat
egiten duenean,



irlako detektibe
trebe eta
ospetsuari
deitzen diote.

Saiku barraskiloa
da gure
detektibearen
izena.



Saiku detektibea
karaten, boxeoan,
esgriman eta
beste gauza
askotan jantzita
dago.

